

HIZTEGI HANDIA

Castellano - Euskara
Euskara - Gaztelania

VOX

Índice/Aurkibidea

Aurkezpen gisa	VII
Presentación	IX
Abreviaturas y símbolos	XIII
Diccionario Castellano-Euskara	I
Laburdurak eta ikurrak	III
Euskara-Gaztelania hiztegia	I

Aurkezpen gisa

Nabarmena da, VOX *Oinarrizko hiztegia*-ren atarikoetan esaten genuenez, azken urteotan euskarak bizi duen eguneratze eta normaltze prozesua. Irakaskuntzan, helduen euskalduntze-alfabetatzeetan, hedabideetan, literatura sorkuntzan, itzulpengintzan eta abarretan urrats sendoak egin ditu gure hizkuntzak eguneratze eta normaltze ahalegin horretan. Bestalde, gero eta pertsona gehiagok, nork bere mailan eta era batera edo bestera, harreman estua dute euskararekin. Eta euskal hiztun eta euskara ikasle horiek beren premiak betetzeko tresna eraginkorragoen eske ari dira, gero eta areago. Esku artean duzun VOX *Hiztegi handia*, ekarpen garrantzitsua izan nahi du gure hizkuntzaren eguneratze eta normaltze prozesu horretan.

Hiztegi honen egitura eratzean erabiltzailea izan dugu gogoan, eta haren lana errazten eta arintzen saiatu gara. Adiera bakoitzak paragrafo bat osatzen du eta gramatika kategoriaren berri ematen da guztietan. Letra tipoak hautatzean irakur-arintasuna eta sarreraren zatiak argi bereiztea izan dugu gogoan. Euskara eta gaztelania elkarrengandik urruti dauden hizkuntzak direnez gero, testuinguruak —letra etzan meheetan— eta, behar zenean, hizkuntza erregistroa adierazi ditugu. Adibideetan denotazio eta konotazio kidetasuna aurkitzen saiatu gara. Esapideak eta esapideetako izenak —● eta ■ batez adieraziak— ugariak dira, eta euskarazkoen kide egokienak eta gaztelaniazkoen ordain zuzenenak emateko helburua dute.

Euskara-gaztelania zatian, adiera bakoitzak, askotan, adibide bat baino gehiago biltzen du, euskal hitzak testuinguru desberdinetan agertzen dituen ñabardurak erakusteko asmoz. Aditz guztietan aditz izena adierazten dugu eta, begien bistakoa ez denean, haren itzulpena. 5000ren bat gramatika argibide (▲ ikurraz markatuak) paratu ditugu, hitzen erabileraren eta joskeraren berri emateko, hitz amaierako «r» bigunak adierazteko, aditz trinkoen jokia, eta zenbatzaileen eta izenordainen «deklinabidea» jakinarazteko, besteak beste. Hainbat hitzen aldaera dialektalak ere ematen ditugu, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuaren bidetik, «hobe» eta «erabil» argibideak erabiliz.

Castellano-euskara zatiari dagokionez, VOX *Hiztegi handiak* ia hirukoizten ditu Vox *Oinarrizko hiztegia*-ren adiera eta esapideak. Nolanahi ere, kopuruetan baino areago sarreraren nolakotasunean egin dugu ahaleginik handiena, esapide eta adibideetan batez ere. Esaterako, esapideen alorrean, beste euskal hiztegi elebidunek ekartzen ez dituz-

ten eta eguneroko bizitzan erabat beharrezkoak diren esapideak —hots, *carne de cañón*, *golpe bajo* edo *gran superficie* bezalakoak— hautatzen eta haientzat ordainak ematen saiatu gara gehienbat. Adibideei dagokionez, haien euskal ordain jatorrenak eta txukunetak aurkitzen ahalegindu gara, erdarazkoen hitzez hitzeko *klonikoen* ihesi. Orobat gramatika hitzetan eta *ser*, *poner* bezalakoetan —hau da, tamalez hiztegieta inork begiratzen ez dieten sarreretan—, ahalegin berezia egin dugu edozein idazlerentzat baliagarri gerta daitezkeen aterabideak ematen.

Ohar batzuk egin behar ditugu *castellano-euskara* zatiko sarreren moldaketa eta itxurari buruz. Sarreren adiera bakoitzean euskal ordainak egokitasunaren arabera hurrenkeratu dira: lehenik gure ustez egokiena dena, eta ondoren, hura ez hartzekotan egokiena iruditzen zaiguna, eta horrela gainerakoak. Sarrera bakoitzean, hari bai denotazioan eta baita konotazioan ere, zuzen eta zehatz dagozkionak soilik paratzen saiatu gara. Ordain horien artean alderen bat dagoenean puntu eta koma batez berezi ditugu adieraren barnean. Irakurlea harrিতuta gerta daiteke ikustean hainbat adibideetan ez dela erabiltzen ordain horietako bat ere, bestelako bat baizik; horrela jokatzu adierazi nahi izan dugu, gaztelania eta euskara elkarrengandik aski urrun dauden hizkuntzak izaki, ezin dela beti zenbait ordain bidez erdarazko hitzaren esanahi eremu guztia bete, eta idazleak kontuan izan behar duela testuinguru jakin batean beste aterabide bat gerta daitekeela egokiena; bistan da, adibidez, *longitud*-en euskal ordain egokiena «luzera» bada ere, ez dela hortik segitzen *tiene 5 metros de longitud* esaldiaren euskal ordain egokiena «bost metroko luzera du» edo antzekoren bat denik: euskal hiztun eta idazle onek «bost metro luze da» erabili eta erabiltzen dute haren kide. Zenbait euskal ordaini bukaeran marratxo bat ezarri diogu; horrekin adierazi nahi dugu delako ordain hori hitz elkartu baten lehen osagai gisa erabili behar dela; hortaz, elkarre jakin batzuetan ez du delako marratxoak zertan agertu, batez ere idazleak, nik bezala, Euskaltzaindiaren «marratxorik gabeko aukera» hautatzen badu. Euskal ordain batzuetan zati bat parentesi artean agertzen da; uste dugu irakurleari ez zaiola kostatuko ikustea parentesi horiek noiz adierazten duten testuingurua eta noiz biltzen dituzten hautazko osagaiak. Bukatzeko, zenbait sarreratako ordainak letra etzanetan ematen dira, *gazpacho* adibidez; idazkera horrekin adierazi nahi dugu hitz hori arrotz-tzat hartzen dugula, eta hitz arrotzak, hizkuntza guztietan gertatzen den bezala, letra etzanetan idatzi behar gemituzkeela gurean ere.

Presentación

Es evidente que el euskara está inmerso, desde hace unos años, en un proceso de normalización y que se están consiguiendo avances notables en el uso del idioma en la escuela y los medios de comunicación, así como en la producción literaria y la traducción. Por otra parte, cada vez son más las personas que utilizan el euskara en sus relaciones sociales. Todo ello se traduce en una demanda imperiosa de instrumentos eficaces para cubrir las nuevas y diversas necesidades de los distintos tipos de usuarios de la lengua. Este VOX *Hiztegi handia* quiere ser una aportación importante en el proceso de normalización y puesta al día de la lengua vasca.

Al diseñar este diccionario hemos intentado facilitar y flexibilizar las consultas del usuario. Cada acepción inicia línea y se indica siempre su categoría gramatical. La tipografía está pensada para que la lectura sea rápida y se distingan con claridad las distintas partes del artículo. Tratándose de dos lenguas tan dispares como son el euskara y el castellano, hemos incluido, entre paréntesis y en cursiva fina, el contexto y, en los casos extremos de la gama, el registro lingüístico (*formal, vulgar, etc.*). Los ejemplos, además de ilustrar y documentar, como en los diccionarios bilingües de lenguas emparentadas o afines, cumplen en éste una función complementaria y muy útil a la hora de aproximarse a la equivalencia más adecuada. Las abundantes expresiones idiomáticas (marcadas con ●) y nombres compuestos (■) ayudan a expresarse correctamente en la otra lengua o a captar mejor su sentido.

En la parte *euskara-gaztelania* una misma acepción incluye, con frecuencia, varios ejemplos, que no son reiterativos, sino un reflejo de los diferentes matices de la palabra vasca en sí misma y en las frases de las que forma parte. En todos los verbos indicamos el sustantivo verbal, así como sus traducciones cuando éstas no son obvias. Hemos incorporado unas 5000 aclaraciones gramaticales (marcadas con ▲) en las que se explicita, entre otras, la colocación y uso de las palabras, los casos en que la «r» final es suave, la conjugación de los verbos sintéticos o la «declinación» de algunos pronombres y cuantificadores más o menos irregulares. En los casos de palabras alternativas en euskara indicamos tanto las variantes preferidas («hobe») como las desaconsejadas («erabil»)

En la parte *castellano-euskara* se ha hecho un esfuerzo especial en proponer equivalentes vascos de expresiones de mucho uso en la vida cotidiana, pero que no apa-

recen en otros diccionarios vascos, como por ejemplo, *carne de cañón*, *golpe bajo* o *gran superficie*. En los ejemplos hemos huido tanto de construcciones triviales, que no aportan nada al usuario con un mínimo conocimiento del euskara, como de las traducciones *clónicas* que se alejan de los equivalentes tradicionales sin aportar nada a cambio. Se han cuidado así mismo las palabras gramaticales o las entradas como *ser* o *poner* que, por desgracia, nadie consulta en este tipo de diccionarios. En cada acepción hemos ordenado los equivalentes vascos por su idoneidad, indicando en primer lugar el que en nuestra opinión es el más adecuado. Por otra parte, en estos equivalentes hemos intentado aproximarnos en lo posible tanto a la denotación como a la connotación de la entrada española. Los equivalentes vascos que constituyen el primer elemento de un nombre compuesto los hemos indicado con un guión final. Para terminar, el equivalente de las palabras exclusivas de la tradición cultural española, como por ejemplo *gazpacho*, lo hemos puesto en cursiva para indicar que en nuestra opinión debería aparecer en los textos vascos en cursiva, de acuerdo con el tratamiento que dan todas las lenguas a las palabras no asimiladas de otros idiomas.

Guía para consultar este diccionario

Ejemplos de uso	<p>corresponder</p> <p>1 <i>i</i> egon (a, -i): <i>este comportamiento es el que corresponde a su educación</i>, jokaera hau da haren heziketari dagokiona; <i>los zapatos no corresponden al vestido</i>, oinetakoak ez dagozkio soinekoari.</p> <p>2 <i>i</i> (encajar) egokitu: <i>hacer corresponder</i>, egokiarazi.</p> <p>3 <i>i</i> (pertener) izan (a, -ko), egon (a, -i): <i>esta mesa corresponde a mi habitación</i>, mahai hau nire gelakoa da.</p> <p>4 <i>i</i> (en un reparto) egokitu: <i>me correspondió un coche</i>, auto bat egokitu zitzaidan.</p> <p>5 <i>i</i> (incumbir) egon (a, -i), ardua izan: <i>eso no te corresponde a ti</i>, hori ez dagokizu zuri.</p> <p>6 <i>i</i> (devolver) itzuli; ordaindu: <i>ella le correspondió con otro regalo</i>, beste opari bat egin zion ordainetan.</p> <p>7 <i>t</i> erantzun: <i>porque no sabe si será correspondido su amor</i>, ez baitaki bere maitasunari erantzungo dion.</p> <p>8 <i>corresponderse, p</i> (ajustarse) bat etorri: <i>la dirección que te dio no se corresponde con la que yo tengo</i>, eman zizun helbidea ez da nik daukandana.</p>	<p>Adibideak</p> <p>Preposizio erregimena</p> <p>Testuinguru-adierazgarriak</p>
Régimen preposicional		
Indicadores de contexto		
Subentrada		Azpisarrera
Fraseología	<p>asco <i>m</i> nazka, higuin, narda.</p> <ul style="list-style-type: none"> ● <i>coger asco a algo</i>, zerbaiti nazka hartu. ● <i>dar asco</i>, nazka eman: <i>dejó la cocina que daba asco</i>, zikin-zikina utzi zuen sukaldea. ● <i>dar asco</i>, nazka eman: <i>me da asco ese sitio</i>, nazka ematen dit toki horrek. ● <i>estar hecho, -a un asco</i>, zikin-zikina egon. ● <i>hacer ascos a algo</i>, zerbaiti itsusiak egin, muzin egin. ● <i>¡qué asco!</i>, hau nazka! ● <i>ser un asco</i>, nazkagarria izan; oso txarra izan. 	Esapideak
Elementos intercambiables	<p>ascua <i>f</i> txingar, ikatz bizi.</p> <ul style="list-style-type: none"> ● <i>arrimar el ascua a su sardina</i>, <i>fam</i> (nork) bere opilari su eman. ● <i>estar en/sobre ascuas</i>, urduri egon, jakiteko irrikatzen egon. ● <i>tener a alguien sobre/en ascuas</i>, norbait urduri/jakiteko irrikatzen eduki. 	Kideko osagaiak
Indicador de registro lingüístico	<p>asaz <i>adv lit</i> (muy) oso, guztiz; <i>lit</i> (bastante) aski.</p>	Hizkuntza motaren adierazgarria
Nombres en construcciones fijas	<p>arca</p> <p>1 <i>f</i> kutxa.</p> <p>2 <i>f</i> (caja de caudales) kutxa gotor.</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ <i>arca de Noé</i>, Noeren kutxa. ■ <i>arcas públicas</i>, herri/estatuko diru kutxa. 	Esapideetako izenak

Hiztegi hau nola erabili

Adierak bereizirik	<p>agertu¹</p> <p>1 <i>da</i> parecer, mostrarse: <i>suge bat agertu zitzaion bidean</i>, se le apareció una culebra en el camino; <i>Jaunaren aingerua agertu zitzaion</i>, se le apareció el ángel del Señor.</p> <p>2 <i>da</i> presentarse; comparecer: <i>epailearen aurrean agertu behar izan zuen</i>, tuvo que comparecer ante el juez; <i>laguntzaile gisa agertu zen</i>, se presentó como colaborador.</p> <p>3 <i>du</i> presentar, mostrar: <i>euskarari beti agertu dio atxikimendu beroa</i>, siempre ha mostrado un gran apego al euskara.</p> <p>4 <i>du</i> publicar: <i>agertu berri duen liburua</i>, el libro que acaba de publicar.</p> <p>5 <i>du</i> ERL revelar: <i>Jainkoak guri agertu digu hori Izpirituaren bidez</i>, el Señor nos lo ha revelado por el Espíritu.</p> <p>● iritzia agertu, dar la opinión.</p> <p>▲ aditz izena: agertze, 1 aparición. 2 presentación; comparecencia. 3 presentación, muestra. 4 publicación. 5 ERL revelación.</p>	Acepciones separadas
Adiera bakoitzaren gramatika kategoria		Categoría gramatical en cada acepción
Aditz izena eta bere itzulpenak		Sustantivo verbal y sus traducciones
Teknika hitza		Tecnicismo
Sarrera izenkideak	<p>koska¹</p> <p>1 i saliente: <i>koska batean eseririk</i>, sentado en un saliente.</p> <p>2 i hendidura; mella; muesca.</p> <p>3 i (<i>kopurua</i>) pico: <i>ehun euro eta koska</i>, cien euros y pico.</p> <p>4 i quid, meollo: <i>hor dago koska</i>, ahí está el quid de la cuestión.</p> <p>koska² i golpe (con ruido); topetazo, golpe con la cornamenta.</p> <p>koska³</p> <p>1 <i>io</i> (<i>gizonezkoak</i>) cabezota (<i>fam</i>), terco.</p> <p>2 <i>io</i> (<i>emakumezkoak</i>) coqueta.</p>	Entradas homónimas
Aldaera lehenetsia	<p>kurtso</p> <p>1 i HEZK curso.</p> <p>2 i curso, recorrido.</p> <p>▲ 1. <i>ean</i>, hobe: ikasturte; ikastaro.</p> <p>▲ 2. <i>ean</i>, hobe: ibilbide.</p>	Alternativa preferida
Aldaera desegokia	<p>haundi*: erabil: handi.</p>	Alternativa desaconsejada
Euskalki marka	<p>ilbeltz <i>gip naf i enero</i>.</p> <p>▲ hobe: urtarril.</p>	Indicación del dialecto
Gramatika argibideak	<p>etzan</p> <p>1 <i>da</i> tumbarse.</p> <p>2 <i>da</i> yacer, reposar.</p> <p>3 <i>da</i> yacer, residir, estar: <i>honetan datza arazoa</i>, aquí reside el problema.</p> <p>4 <i>du</i> recostar.</p> <p>▲ 3. <i>ean</i>, singular eta pluraleko hirugarren pertsonak soilik; forma trinkoak: natza, hatza, datza, gautza, zautza, zautzate, dautza; nentzan, hentzan, zetzan, geuntzan, zeuntzan, zeuntzaten, zeutzan.</p>	Información gramatical Conjugación de los verbos sintéticos
Aditz trinkoen jokoa		

- abogar a favor de, -en alde egin.
- abogar por, bultzatu; (*defender*) -en alde egin.

abolengo *m* jatorri, etorki.

- de rancio abolengo, jatorri zaharrekoko.

abolición *f* ezeztatze.

abolicionismo *m* abolizionismo.

abolcionista *adj-mf* abolizionista, ezeztatzezale.

abolir *t* ezeztatu.

- abolir la esclavitud, esklabotza ezeztatu.

abolladura *f* mailatu; (*bollo*) koskor.

abollar

- 1 *t* mailatu, maspildu.
- 2 *abollarse*, *p* mailatu.

abolsarse *p* harrotu.

abombar

- 1 *t* sabeldu.
- 2 *abombarse*, *p* sabeldu.

abominable *adj* higuigarri, gaitzesgarri.

- el abominable hombre de las nieves, elurretako gizon izugarria.

abominablemente *adv* higuigarriki.

abominación *f* higuintze, gaitzeste; (*cosa*) higuigarrikeria.

abominar

- 1 *t* higuin izan, gaitzetsi.
- 2 *i* higuin izan (**de**, -), gaitzetsi (**de**, -).

abonable *adj* ordaintzeko.

abonado,-a

- 1 *adj* (*tierra*) ongarritu(a).
- 2 *adj* *FIN* ordaindu(a).
- 3 *m,f* (*al teléfono*) abonatu; (*a revista*) harpidedun; (*a teatro, tren, etc*) abonodun.

abonar

- 1 *t* *FIN* ordaindu, ordainketa egin.
- 2 *t* (*avalar*) bermatu: *les abonó su buena reputación*, haien izen onak beren alde egin zuen.
- 3 *t* (*tierra*) ongarritu.
- 4 *abonarse*, *p* (*a revista*) harpidetu (**a**, -ra); (*a teatro, tren, etc*) abonoa/denboraldiko txartela hartu.
- abonar al contado, eskura ordaindu/pagatu.
- abonar en cuenta de, -en kontuan ezarri.

abonaré *m* agintza billete, pagakizun agiri.

abono

- 1 *m* (*pago*) ordaintze.
- 2 *m* (*aval*) berme.
- 3 *m* (*fertilizante*) ongarrri; (*acción*) ongarrritze.
- 4 *m* (*a revista*) harpide, abonamendu; (*a teatro, tren, etc*) denboraldiko txartel, abonamendu.

abordable *adj* (*lugar*) heltzeko/iristeko erraz; (*persona*) hurbil erraz, xalo; (*asunto*) ekin dakioken, ekiteko moduko.

abordaje

- 1 *m* (*choque*) elkar jotze, tratbatze.
- 2 *m* (*ataque*) abordatze.

abordar

- 1 *t* *MAR* (*chocar*) -ekin jo; elkar jo; (*atacar*) abordatu.
- 2 *t* *MAR* (*arribar*) porturatu; lehorreratu.
- 3 *t* (*persona*) alboratu; (*asunto, tema*) heldu, ekin.

aborigen

- 1 *adj* bertako, jatorrizko.
- 2 *m* aborijen; lehen biztanle.

aborrascarse

- 1 *p* ekaiztu.
- 2 *p* hodeitu.

aborrecer

- 1 *t* higuindu, higuin izan, aiher izan.
- 2 *t* (*aves*) zapuztu.

aborrecible *adj* higuigarri.

aborrecimiento *m* (*acción*) higuintze; higuin, herra, gaitzerizko.

aborregado,-a *adj* ilupa itxurako; *fam* (persona, toro) otzan, arkumekara.

aborregarse *p* otzandu.

abortar

- 1 *i* (*voluntariamente*) abortatu, umea galarazi, haurdunaldia eten; (*involuntariamente*) hilaurtu, abortatu, umea galdu.
- 2 *i* (*fracasar*) huts egin.
- 3 *t* (*interrumpir*) eten; (*frustrar*) huts eragin, zapuztu: *la policía abortó el intento de fuga*, poliziak ihes ahalegina zapuztu zuen.
- hacer abortar abortarazi, haurdunaldia etenarazi.

abortista

- 1 *mf* (*médico*) abortu-eragile.
- 2 *mf* (*partidario*) abortista.
- clínica abortista, abortatze klinika.

abortivo,-a

- 1 *adj* hilaur-, abortu-.
- 2 *abortivo*, *m* ume-galarazle, abortu-eragile.

aborto

- 1 *m* (*provocado*) abortatze, ume galarazte, abortu; (*espontáneo*) umegaltze, ilortze, abortu.
- 2 *pey* bidutz, munstro.
- derecho al aborto abortatze eskubidea.
- ley del aborto abortu legea.

abotargamiento *m* hantze.

abotargarse *p* hantu, puztu.

abotonar

- 1 *t* (*ropa*) botoitu, -en botoiak lotu.
- 2 *i* (*planta*) kimatu.
- 3 *abotonarse*, *p* botoitu, -en botoiak lotu.

abovedado,-a *adj* ganga formako; gangaz estali(a).

abovedar *t* ganga forma eman; gangaz estali.

abra *f* itsasadar, badia txiki.

abracadabra *m* abrakadabra.

abrasador,-ra

- 1 *adj* kiskalgarri, erregarri.

- 2 (*pasión etc*) kiskalgarri, gori.

abrasar

- 1 *t* (*quemar*) kiskali, erre.
- 2 *t* (*calentar*) goritu.
- 3 *i* kiskali: *esta sopa abrasa*, zopa bero-beroa dago.
- 4 *abrasarse*, *p* kiskali.
- *abrasarse de calor/de sed*, beroak/egarriak itotzen egon.

abrasión *f* urratze, urradura.

abrasivo,-a *adj-m* urratzaile.

abrazadera *f* besarkagailu, finkagailu.

abrazar

- 1 *t* besarkatu: *se abrazaron*, elkar besarkatu zuten.
- 2 *t* (*ceñir*) besarkatu, inguratu.
- 3 *t* (*incluir*) besarkatu, barne(an) hartu.
- 4 *t* (*adherirse*) -i atxiki, besarkatu: *abrazó la fe católica*, fede katolikoa besarkatu zuen.

abrazo *m* besarkada.

- dar abrazo a alguien, norbait besarkatu, norbaiti besarkada (bat) eman.
- (muchos) abrazos/un abrazo (de) (*en carta*) besarkada bat, goraintziak.

abrebotellas *m* botila-irekitzeko, botila irekigailu.

abrecartas *m* gutun-irekitzeko, paper labana.

abrefácil *adj* irekierraz; (*lata*) tiratzeko eraztundun.

ábrego *m* hego, hego haize.

abrelatas *m* ontzi/poto-irekitzeko.

abrevadero *m* edaska, aska.

abreviar *t* daten eman.

abreviación *f* laburtze, laburpen.

abreviar

- 1 *t* laburtu.
- 2 *t* (*texto*) laburtu; (*palabra*) laburdura egin.
- *abreviar los trámites* zuzemenak lasterragotu.
- *para abreviar* laburbiltzeko.

abreviatura *f* laburdura: *la abreviatura de etcétera es etc*, *eta abar*-en laburdura *etab.* da.

abridor

- 1 *adj* irekitzaile.
- 2 *m* irekitzeko, irekigailu.

abrigadero *m* aterpe, babesleku.

abrigar

- 1 *t* (*contra el frío*) berogarriak jantzi; (*ropa*) berotu: *abriga bien al niño*, jantzi berogarriak haurri; *este jersey abriga mucho*, jertse hori oso beroa da.
- 2 *t* (*proteger*) babestu.
- 3 *t* (*sospechas, esperanzas*) izan.
- 4 *abrigarse*, (*uso reflexivo*) berogarriak jantzi.

abrigo

- 1 *m* (*prenda*) beroki.
- 2 *m* (*refugio*) aterpe, babesleku.
- *al abrigo de* (-en) babesean; *al abri-*